



ONDARROAKO UDALA



---

## UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

---

**Batzarra:** Ohiko Udalbatzarra

**Eguna:** 2015-03-26

**Ordua:** 19:30 -20:00

**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratuak:**

**Bertaratuak:**

-MIREN ARGIA ITUARTE ARKOTXA

- RAKEL ELU BENGOETXEA.

--JOSEBA ZABALETA ARRIZABALAGA

-TXOMIN ETXABURU SOLABARRIETA

-IERA LARRINAGA GARALDE

- RICARDO MARIA BEITIA ITURRIZA

-MIREN ARANZAZU BURGOA AGUIRREGOMEZCORTA

-OIER ESPILLA BENGOCHEA

-AITOR MARURI TXURRUKA



ONDARROAKO UDALA



**Ez dira bertaratu:**

-IBON ARANBARRI ETXABURU

-AMAIA IBERNIA BELAMENDIA

-JOSEBA ANDER ROSALES LERTXUNDI

--LEIRE BEITIA ANABITARTE

**Idazkaria:** Garaine Ajuria Lasuen



ONDARROAKO UDALA



Jarraian, Alkateak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma badagoela egiaztatu du, eta batzordea eratutzat jo da.

Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

### **1.- Aurreko akta irakurri, eta hala badagokio, onartzea.**

Batzordekideren batek aktan testuei buruzko adierazpenik egin nahi ote duen galdetu du. Adierazpenik ez dagoenez, akta bozkatu eta **aho batez** onetsi dute.

### **2.- Dekretuen Kontu emana.**

Galdera egon ez denez, eta Udalbatzak sinatutako dekretuen berri izan duenez, hurrengo puntuarekin jarraitu du.

### **3.-Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra idazteko kontratazio espedientearen onarpena.**

Iera Larrinaga andreak hitza hartu du gai honen inguruko zehaztapenak emateko. Ikusita Ondarroako Ordezko Arauak derrigorrezko berrikuspena behar dutela eta aurreko urteetan Plan Orokorrerako aurre azterlanak egin direla, beharrezkoa ikusten da Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorreko azterketa hastea.

Zerbitzuaren ezaugarriak ikusita, prozedura irekia, ekonomikoki abantailatsuena den eskaintza, adjudikazio irizpide ugariak, prozedura egokiena dela uste da.

2015ko martxoaren 23an kontratazioa kudeatuko duten Administrazio klausula berezien agiria eta agindu teknikoaren agiria idatzi eta espedientera atxiki direla ikusita.

Kontu hartzaileak dagokion kreditu atxikipena egin duela ikusita.



ONDARROAKO UDALA



Laguntzen duen dokumentazio guztia eta Herri Sektorearen Kontratuei buruzko Legearen 110. eta 2. xedapen gehigarrian kudeatzen dena ikusita,

Udalbatzari, Hirigintza Batzordearen aldeko txostena ikusita proposatzen zaio:

**Lehenengo.** Prozedura irekia tramitazio arrunta, ekonomikoki abantailatsuena den eskaintza, adjudikazio irizpide ugarirekin, egingo den Hirigintza Antolakuntzarako Plan Orokorra idaztearen kontratazio espedientea onartzea, bere lizitazioa deituz.

**Bigarren.** 248.000 euro gehi 52.080,00 euro (BEZa), esandako kontratuaren Udalalari dagokion gastua onartzea.

**Hirugarren.** Kontratazio espedientea kudeatuko duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta baldintza teknikoen orria onartzea. Kontratazioa prozedura irekiaz, ekonomikoki abantailatsuena den eskaintza, adjudikazio irizpide ugarirekin, egingo da.

**Laugarrena.** Honako hauek Kontratazio Mahaiko kide izendatzea

#### Titularrak

- Mahaiburua:- Hirigintza batzordeburua
- Mahaikideak: Josebe Arauko Urrosolo
  - Leticia Alvarez Mendoza
  - Gorka Lauzirica Urberuaga
  - Garaine Ajuria Lasuen
- Idazkaria: Felix Aguilera Angulo

#### Ordezkoak.

- Mahaiburua:- Alkatea
- Mahaikideak:- Maria Iriondo Arrieta
  - Unai Kortabarria Castro
  - Ekaitz Kortaberria Lizeranzu
- Idazkaria: Iñaki Akarregi





ONDARROAKO UDALA



**Bosgarrena:** Lizitazioari buruzko iragarkia dagozkien boletinetan eta kontratistaren profileen argitaratzea.

Udalbatzak **gehiengo osoz** onartu du eta botazioa honako hau izan da:

**Alde :** 8 BILDU udal taldea

**Abstentzioa:** 1 EAJ udal taldea

#### **4.-Kaleko salmenta arautzeari buruzko udal Ordenantzaren hasierako onespena**

Iera Larrinaga andreak hitza hartu du gai honen inguruko zehaztapenak emateko. Alkatetzak proposatuz Ordenantza idatzi eta aztertu egin da. Aurrekoa ikusirik, Hirigintza Batzorde-Informatzailearen proposamena kontuan hartuta, Udalbatza osoak ondorengo erabaki hartu du:

**Lehena.-** Kaleko salmenta arautzeari buruzko udal Ordenantza hasiera baten onartzea, proposatutako testuaren arabera eta espedientean agertzen dena.

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrera agertzea, hogeita hamar egunetako epealdian, horretarako "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" iragarkiak argitaratuz, epe hori bitartean interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzeten zuzenketa-eskeak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko helburuz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49 artikulua arabera.

**Hirugarrena.-** Zuzenketa-eske eta iradokizunak aurkeztu baldin badira Udalak erantzuna emango die, espedienteari buruzko behin-betiko erabakia hartzeko. Alegaziorik aurkeztu ezean, erabakia behin betikotzat joko da, bestelako akordiorik hartu gabe.

**Laugarrena.-** Araudiaren behin-betiko onspena "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratuko da eta ez da indarrean izango testu osoa aipatu aldizkarian argitaratu eta handik 15



ONDARROAKO UDALA



lanegunetara, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 2ko 7/85 Legearen 70.2 eta 65.2 artikuluek diotenez.

Udalbatzak **gehiengo osoz** onartu du eta botazioa honako hau izan da:

**Alde : 8 BILDU** udal taldea

**Abstentzioa: 1 EAJ** udal taldea

**5.-Irisgarritasun egoera hobetzeari buruzko udal ordenantzaren hasierako onespena**

Iera Larrinaga andreak hitza hartu du gai honen inguruko zehaztapenak emateko. Alkatetzak proposatuz Ordenantza idatzi eta aztertu egin da. Aurrekoa ikusirik, Hirigintza Batzorde-Informatzailearen proposamena kontuan hartuta, Udalbatza osoak ondorengo erabaki hartu du:

**Lehena.-** Irisgarritasun egoera hobetzeari buruzko udal ordenantza hasiera baten onartzea, proposatutako testuaren arabera eta espedientean agertzen dena.

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrera agertzea, hogeita hamar egunetako epealdian, horretarako "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" iragarkiak argitaratuz, epe hori bitartean interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzeten zuzenketa-eskeak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko helburuaz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49 artikulua arabera.

**Hirugarrena.-** Zuzenketa-eske eta iradokizunak aurkeztu baldin badira Udalak erantzuna emango die, espedienteari buruzko behin-betiko erabakia hartzeko. Alegaziorik aurkeztu ezean, erabakia behin betikotzat joko da, bestelako akordiorik hartu gabe.

**Laugarrena.-** Araudiaren behin-betiko onespena "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratuko da eta ez da indarrean izango testu osoa aipatu aldizkarian argitaratu eta handik 15



ONDARROAKO UDALA



lanegunetara, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 2ko 7/85 Legearen 70.2 eta 65.2 artikuluek diotenez.”

Udalbatzak **gehiengo osoz** onartu du eta botazioa honako hau izan da:

**Alde :** 8 BILDU udal taldea

**Abstentzioa:** 1 EAJ udal taldea

**6.- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Ondarroako Udalaren artean Artibai Egoitzan. Egoitza zerbitzua emateko sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren aldaketaren onarpena.**

Rakel Elu andreak hitza hartu du gai honen inguruko zehaztapenak emateko. Izan ere, ikusita otsailaren 26an Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako lankidetzaren hitzarmenaren zirriborroa. Zentroko itundutako plazen eskaria asetzeko, Aldundiarentzat gordetzeko 2 plazatan kopurua handitzeko aldaketa proposatu duela.

Udalbatza Osoari erabaki hau hartzea proposatu zaio:

**Lehena:** Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Ondarroako Udalaren artean Artibai egoitzan zerbitzua emateko sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren aldaketa proposamena.

**Bigarrena:** Alkateari hitzarmen aldarazpen hau sinatzeko eskumenak ematea.

**Hirugarrena:** Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari eta Udal kontu-hartzaileari akordio honen berri ematea.

Udalbatza kideek **aho batez** onartu egin dute.





ONDARROAKO UDALA



## 7.- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren estatutuen aldaketaren onarpena.

Rikardo Beitia jaunak azaldu du, kusita otsailaren 12an, 651 sarrera zenbakidun idatzia; Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, eskatzen duela Ondarroako Udalak onar dezala Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Estutu aldaketaren onarpena.

Kontuan hartuta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Estutuen 44. artikulua, Estatutuen aldaketa patzuergoratutako erakundeek onartu behar dutela.

Kontu hartuta Estatutuen aldaketa sakonago bat egin behar dela erakundeen ordezkariak banaketa desberdin bat egiteko, eta beraz Batzar Nagusietako partaide eraketa desberdin bat egiteko.

Ikusita beraz, aldaketa egitekotan sakonagoa eta demokratikagoa izan beharko litzatekeela, eta ez espainiako gobernuak hala erabaki duelako arrazionalizazio legearen bitartez.

Udalbatza Osoari erabaki hau hartzea proposatu zaio:

**Lehena:** Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aurkeztutako 651 sarrera zenbakidun eskaria ez onartzea. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Estatutuen aldaketa hain zuzen.

**Bigarrena:** Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari akordio honen berri ematea.

Udalbatzak **gehiengo osoz** onartu du eta botazioa honako hau izan da:

**Alde :** 8 BILDU udal taldea

**Kontra:** 1 EAJ udal taldea





ONDARROAKO UDALA

## 8.-Eskaerak eta Galderak.

Eskaririk eta Galderarik ez denez egon osoko bilkura amaitutzat eman dut alkatearen oniritziarekin, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut.

IDAZKARIA

